

MARINO LEJARRETA
(Akarrizketa)

Apirilaren 12an, Zornotza txirrindulariz inguraturik agertu jakun. «Udabarriko Sari Nagusia» ospatzen zan egun orretan. Beste urtetan bezala, an genduan aurten be Marino ilusioz beterik. Ez deutso iñoiz be berriztarrak laisterketa oni uko egin. Ondo merezita dauko Zornotzako domiña.

Egun lanbrotsua ta erripidea labankorra. Autzagane jaitsieran, bizikletatik jausi ta gure txirrindularia kunetara. Erorketa bortitza ta berealaxe ospitalera. Aste Santuaren asieran, Erramu domekan, eldu jakon Lejarretari bere pasiñoa.

Beragaz alkarrizketa bat izateko asmotan urreratu giñan Galdakaora Juan Mari Uribezubia «Katarra» ta biok. Txeratsu eta humore onaz artu ginduzan Marinok eta bere andragaiak. Laster agertu zan Nestor bere anaia be. Ez batak ez besteak ez euskuen iñongoko trabarik ipini alkarrizketa au egiteko. Aldrebes, oso gertu eta prest edozeri erantzuteko.

A. Olea.- Ze ondorio positibo atera izan dozu Autzaganeko erorketatik?

Marino.- Ainbat! jendeagandik artu izan dodan laguntasuna ta estimua, azpimarratuko neukez.